

3. ARDATZA: EMAKUMEOK, GURE IDENTITATEAK ETA GURE GORPUTZ INTSUMITUAK

3. ARDATZA ONDORIOAK

PROSTITUZIOA

Bi ponentzia aurkeztu ziren:

ANDREEN PROSTITUZIO ANTOLATUAREN ANALISIA. Lanbroa

PROSTITUZIOAREN INGURUKO BURUTAZIOAK. mass medeak

Gai honen inguruan lehenengo aldia da adostasun batera heltzen dela. Alde batetik sexu langileak mugimendu feministara hurbiltzeko ahalegina egin behar dugu beraiek esan behar dutena entzuteko eta ikasteko. Bestetik pobrezia eta prostituzioaren artean dagoen lotura apurtu behar dugu.

EMAKUME LESBIANEN IKUSGAITASUNA ETA PARTE HARTZEA

Aldarte

Kontextu heterosexistan lesbianen ikusezintasuna espazio sozialetik emakume lesbianen urruntzea emateko ezinbesteko tresna dela ulertu behar dugu.

Ikuspuntu honetatik lesbianen ikusgarritasunak zentzu politiko eta soziala izan behar du, kolektibo honen protagonismoa talde sozial bezala lesbianak bizi duten egoeran aldaketak positiboak ekarriko ditu eta kolektibo bezala lortuko diren aldaketak indibidualki lortuko direnak baino handiagoak izango dira.

“AULLIDOS DE CUERPOS INSUMISOS” Medeak eta ROLING ROLAK pripublikarrak

Izkutuan eta alde batera utzi diren identitate guztiei ongietorria eman behar zaie eta mugimenduan lekua egin. Trans, kings, putak,.. identitate guztiak errekonozitu behar dira.

Denak gara lesbianak, denak gara trans, denak gara putak, ohiuka dezagun.

ZIBERFEMINISMOA. Plazandreok

Komunikabide tradizionalak ematen duten irudi negatiboari aurre egiteko barne ta kanpo mailako komunikazio estrategia behar dugu. Sarea tresna egokia da, sareak gure mezu propinen igorle bihurtzen gaitu filtro eta bitartekaririk gabe. Eztabaidatzen jarraitzeko (Jardunaldi Feminsiten ondoren, adibidez) aukerak eskainiko digun komunikazio multidirekzionalak mantentzeko aukera.

Feminismoak teknologiari buruz eztabaidatzea behar du. Aldaketak handiak dira eta estrategia era konstantean birplanteatu behar da. Teknofobia eta teknofiliaren zatiketarena urrean TEKNOKRITIKA aldarrikatzen dugu. Ezin dugu ezi kusiarena egin eta mundu berri hau existituko ez balitz bezala egin.

Feminismoaren inguruan sarean bila dezakegun errepresentazio deformatu guztia ez da patriarkatuaren errua soilik. Kalitatezko edukien falta onartzen dugu, plataforma guztietara feminismoari buruzko edukiak igotzea beharrezkoa dugu; esaterako wikipedia. Tresnak sortzea, bilatzaile propioak.

Blogak feministen arteko eztabaida eta komunikaziorako tresna baliagarri bezala. Adibide bezala azpimarra dezakegu jardunaldien inguruan sortutako Blogosfera, www.blogoneskak.org

Sarera sarbide publikoa aldarrikatzen dugu. Doan Internetera sartzeko eskubidea dugu edo gutxienez era publiko baten. Software librea ez da gai tekniko bat bakarrik, mugimendu feministak alboratu behar ez duen eta ezin duen apustu politiko garrantzitsu bezala ulertzen dugu.